

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

“**Not Foody Waste**” produktuak hondakin moduan zaborrean amaitzen duten elikagaien kopurua murriztea eta sukaldean edo erosketak egiterakoan laguntzea du helburu.

Horregatik gure produktuak etxean ditugun elikagai guztien informazioa gordetzeko gaitasuna izango du. Horrela, zerbait iraungi egingo denean abisua emango du lehenbailehen kontsumitu dezagun. Gainera, hauek erabiltzeko errezetak proposatuko dizkigu ideiarik ez dugunean. Amaiera batean elikagaiak iraungi egiten badira, produktu hauek nola birziklatu esango digu.

Gure produktuak tablet baten antza izango du, eta bi pantailaz, hainbat botoiz, barra-kode irakurgailu batez eta mikrofono batez osatuta izango da.

- **Bost botoiz** osatuta izango da: pizteko eta amatatzeko botoia, produktu bat sartzean haren informazioa sartzeko botoia, produktu bat kontsumitzean haren informazioa emango duen botoia, errezetak ikusteko botoia eta mikrofonoa produktu bat ahoz bilatzeko botoia.
- Pizteko edo amatatzeko botoiaren ondoan, **bi bonbilla** txiki egongo dira. Urdin kolorekoak produktu baten eskasia adieraziko du, eta gorri kolorekoak iraungitze data hurbil dagoela esango du.
- **Bi pantaila** izango ditu: batean teklatu bat egongo da produktuen informazioa idatziz bilatzeko eta ukimen-ahalmena duen pantaila handi bat non informazioa agertzen den.
- Mikrofono botoiaren ondoan **barra-kode irakurgailua** egongo da, nahi izatekotan barra-kodea duten produktuak bertatik pasatzeko eta informazioa zuzenean sartzeko.
- Bateriaz lan egingo duenez, beheko aldean aparatua kargatzeko zulo bat izango du eta **kargagailu** batekin etorriko da. Atzeko aldean **iman** bat edukiko du hozkailura itsasteko.

